

HUHEZIKo taldeak irabazi ditu 07/08ko Gipuzkoako Unibertsitateen arteko Herri Kirol Topaketak

2008/05/20

Kutxak diruz lagundu eta Ikastolen Elkarteko Xiba taldeak antolatzen ditu, Gipuzkoako Unibertsitateen arteko Herri Kirol topaketa hauek.

Maiatzak 16an burutu zen finala Donostiako Atano III. frontoian. Bertan Tecnun, Deustoko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitateak parte hartu zuten froga hauetan: sokatira, lokotsak, ingudea, toka, saku eramatea, saku lasterketa eta arrauna.

Txapelketa MUko bi taldeen (GEP, goierri eta HUHEZI, HF) berdinketarekin bukatu zen. Ondoren froga berezi bat jokatu zen eta HUHEZIKo taldea suertatu zen garaile.

Irabazleak 6000€ eskuratu ditu bidai bat egiteko.

ZORIONAK eta ondo pasa bidaian!!!!

